

Lanbidek 4.000 langabe kontratatzeko enplegu-plana onartu du

- **Laguntzak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen dutenei eta gazteei zuzenduta daude, Lanbidek, besteak beste, bi kolektibo horiei eman baitie lehentasuna.**

Vitoria–Gasteiz, 2010eko martxoaren 3a.- Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak 42 milioi euroko laguntza-lerro bat onartu du, langabeak kontratatzea sustatzeko. Neurri hori EAEko ia 4.000 herritarrentzat izango da lagungarria.

Laguntzak kotizaziopeko enplegu-prestaziorik jasotzen ez duten langabeei eta diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) jasotzen dutenei zuzenduta daude, baita gazteei ere. Izan ere, bi kolektibo horiei izugarri eragin die krisialdiak, eta, beraz, lehentasunezko hartu ditu Lanbidek. Laguntzen % 20 gutxienez DBEaren jasotzaileentzat izango da, eta % 35 gutxienez 18 urtetik 30 urtera bitarteko gazteentzat.

Laguntza horiek toki-erakundeek eta haiekin lotura duten edo haien mendekoak diren erakundeek eska ditzakete, baita irabazi asmorik gabeko erakundeek, laneratze-enpresek eta enpresa arruntek ere. Interes orokorreko eta gizarte-onurako jardueretarako emango da diru-laguntza, hala nola teknologia berriekin, ingurumenarekin eta energia berriztagarriekin lotura duten jardueretarako, hezkuntzaren eta osasunaren kultura sustatzeko jardueretarako, hurbiltasun-zerbitzuetarako (beren kabuz moldatu ezin diren pertsonen laguntzea, ezgaituak komunitate-bizitzan sartzea, etab.), eta komunitaterako zerbitzuetarako (terapia okupazionalerako zerbitzuak, hirugarren adinekoen dinamizazioa, etab.), besteak beste.

Interes orokorreko eta gizarte-onurako jarduerak lagunduko dira diruz: teknologia berriak; energia berriztagarriak; artea eta ondarea berreskuratzea; ingurumenarekin lotura duten lanak; birziklatzea eta baliabideak berrerabiltzea; hezkuntza- eta eskola-ekipamenduak mantentzea; hezkuntzaren eta osasunaren kulturaren sustapena; turismoa eta kirola; hurbiltasun-zerbitzuak deritzanak (beren kabuz moldatu ezin diren pertsonen laguntzea, ezgaituak komunitate-bizitzan sartzea, etab.); komunitatetarako zerbitzuak (terapia okupazionalerako zerbitzuak, hirugarren adinekoen dinamizazioa, etab.); landa- eta hiri-ingurunea mantendu eta berreskuratzea; banda zabaleko azpiegitura berriak garatzea; eta gizarte-onurako beste eremu batzuk.

Erakundeek nahi duten aldirako kontratatu ahal izango dituzte langileak, betiere kontuan izanik diru-laguntzek lanaldi osoko sei hilabeteko aldia hartuko dutela eraginpean. Zuzkidura berri horri esker, diru-laguntza emango zaie 2011ko otsailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten diren kontratuei.

Laguntza-programa horren bitartez, 2011n politika aktiboetara bideratutako zenbatekoaren % 50 inguru gauzatu da. Guztizko aurrekontua 225 milioi euro da.

Lanbideren aurreko Administrazio Kontseiluan 70,5 milioi euroko partida onartu zen enplegu-politika aktiboetarako. Politika horiek hiru jardun-ildotan gauzatzen dira: ezgaitasuna duten langileak laneratzea, enplegurako lanbide-heziketa, eta enpresa-ekimena eta enplegua sortzen duen jarduera ekonomikoa sustatzea.

Lanbideren Administrazio Kontseiluak (hiruko organoa da, paritariora eta erabakitzailea) gaur onartu dituen laguntzek urtarilaren 31n amaitu ziren + euskadi 09 programako kontratazioarako laguntzei jarraipena ematen diete.

Hona hemen programa honen funtzionamenduaren balantzea:

+EUSKADI 09 EZ OHIKO LAGUNTZA PLANAREN BALANTZEA

- ⇒ 514 eskaera onartu dira.
- ⇒ 61.500.000 euro diru-laguntzetan.
- ⇒ 5.600 langile kontratatu dira.
- ⇒ Batez besteko soldata: 1.700 -1.900 euro, sei hilabetez.

KONTRATAZIOEN ERRADIOGRAFIA

- Aginduaren indarraldia amaitu den arte (2010eko azaroaren 27a) onartu diren 514 eskaeretakako **61.500.000 euroko aurrekontu-zuzkidura** egin da.
- Onartu diren 514 eskaera horiei esker, **5.600 kontratu** egin dira; **kontratu bakoitzari 1.800 €tik gorako** diru-laguntza eman zaio, eta, beraz, Aginduak kontratu bakoitzeko ezarritako 1.500 €-ko batez bestekoa gainditu da.

Formalizatutako kontratuei buruzko datuak:

Sexua

Sexua	Ehunekoak
Emakumeak	% 52,86
Gizonak	% 47,14

A
dina

Adin Tarteak	Ehunekoak
18-30 urte	% 31,26
31-44 urte	% 42,48
45-65 urte	% 26,18

- Orain arte emandako eta erregistratutako kontratuei buruzko datuen barruan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (**DBE**) jasotzen dutenen betetze-mailari buruzko datua % **35** da, eta Aginduak % 30 ezartzen du gutxieneko baldintza gisa.

- Kontratuen **batez besteko iraupena 170,60 egunekoa** da (6 hilabete gutxi gorabehera).

KONTRATUEN EHUNEKOA JARDUERA EREMUAREN ARABERA	
Teknologia berriak	% 12,57
Energia berriztagarriak	% 1,42
Artea eta ondarea berreskuratzea	% 0,42
Ingurumenari lotutako lanak	% 7,41
Baliabideen birziklatzea eta berrerabilera	% 1,13
Hezkuntza- eta eskola-ekipamenduen mantentzea	% 4,21
Kulturaren, hezkuntzaren eta osasunaren sustapena	% 12,51
Turismoa, astialdia eta kirola	% 5,22
Hurbileko zerbitzuak	% 3,20
Komunitatearentzako zerbitzuak	% 21,65
Landa-ingurunea eta hiri-ingurunea mantentzea eta berreskuratzea	% 22,30
Banda zabaleko azpiegitura berriak garatzea	% 0,43
Gizartearentzako erabilgarriak diren bestelako eremuak	% 7,95

LANBIDE KATEGORIAK	EHUNEKOA
Peoia, laguntzailea, II. eta III. mailako ofiziala	% 75,4
Erdi- eta goi-mailako teknikaria, arduraduna eta I. mailako ofiziala	% 24,6

ERAKUNDE ESKATZAILEEN KOPURUA		
Udalak, elkarteak edo lotutako erakundeak eta tokiko bestelako erakundeak	197	% 35
EAEn behar bezala eratutako eta erregistratutako laneratzeko enpresak	22	% 4
Enpresa arrunta	179	% 31
EAEn helbideratutako irabazi-asmorik gabeko erakundeak	174	% 30
Guztira	572	% 100

UDALAK	UDAL ESKATZAILEEN EHUNEKOA BIZTANLERIAREN GAINEAN
Araba	% 94,72
Bizkaia	% 79
Gipuzkoa	% 79,2

